

EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA ARTISAUEN KATALOGO OROKORRA

Andoni Huarte


Hasiera hasieratik, bihoakie Ereintza elkarteko kideei nire zorion agurrik beroena. Zorionak 25 urte luzetan azokari, goren mailan eta duintasunez, eusteko gai izan direlako. Eta zorionak, halaber, liburu mardul eta bikain batean, Artisauen Katalogo Orokorra argitaratu eta eskura jarri digutelako.

Eskulangintzaren azoka

Nahiz eta lan honen xedea katalogoaren aipua egitea den, ezinbesteko deritzot liburu

hau azokaren baitan kokatzea, lanak duen garrantzia jabetzen lagunduko digulakoan. Izan ere, Ereintzak garbi izan du bere kulturetzak herri baten izaeran sustraitua behar duela, artisautza kultura horren ondare dela eta herri honek bere bilakaeran gerora ere artisautza zaindu eta babestu beharra izango duela.

Ereintzak ez zuen azoka erakusleihu soil gisa planteatu, egiazko azoka moduan baizik. Alde horretatik bete-betean asmatu zuela garbi dago. Artisautza erakusketa moduan agertzen zenean, ia erabat horreta-



ra mugatzen zen: lan bitxiak ikustea, lan egiteko molde zaharkitu batzuk ezagutzea, iraganaren oroimena indarberritzea, ikusleak gozaraztea... beste jomugarik ez zen aurreikusten.

Egiatzko azoka moduan martxan jartzera koan, ordea, artisautza zaintzeko bide egokiena artisauen lanbidea erraztea, lanak ezagutaraztea, salerosketak bultzatzea, artisauak eta haien lanak estimuan izatea bultzatu nahi izan zuten. Horren lekuko dira, esaterako, Ereintzak urtez urte argitaratu izan dituen katalogoak. Euskal Herriko hainbat lurraldetako artisauen berri ematen dituzten liburuxkak.

Eskulangintzaren apustua zergatik egin duen azaltzerakoan, honelaxe dio Ereintzak aipatu katalogoan:

“Eskulangintza hartu izanaren arrazoia Errenteriaren nortasunean bertan aurkitzen dugu. Errenterian bertako kultura desitxuratuta geratu zen industrializazioaren ondoriozko Garapen bizkorren eraginez. Artisautzak kulturaren sustrairik sortzaileena eta herrikoiena laburbiltzen zuen. Ereintzak garbi zeukan bere asmoa hasiera hasieratik, eskulangintzak gizarte modernoan bere leku propioa eta berezia aurkitu behar zuen: leku kulturala baina baita leku ekonomikoa ere”.

Juan Garmendia Larrañaga etnografo tolosarrak egoera larrian ikusten zuen artisautza garai hartan. Kezka horrek eraginda ekin zion artisautzaren aldeko lana ikertu eta bultzatzeari.

“Errenteriako azoka behar den bezala baloratzeko, bai jatorriari eta bai denboran izan duen jarraitasunari dagokionez, gogorarazi behar dugu garai hartan artisauak gehienetan egoera oso larrian edo desagertzeaz zeudela, lanbi de zahar batzuekin gertatzen den moduan... Gainbehera hura ikusirik, bilketa lanari ekin beharrean aurkitu nintzen, izan ere, artisau-semea naiz eta familiak zeukan tailerreko argizari eta parafina artean hazi ninduten”.

Oraingo honetan, 25. urteurrena dela eta, azoka aparta antolatzeaz gain, gerora ere eskura izango dugun emaitza baliagarria jarri digute antolatzaileek: Artisauen Katalogo Orokorra.

Katalogoa

Esan bezala, hainbat eta hainbat artisau azaldu izan da Errenteriako azokara azken 25 urtetan. Zuraren langintza, otargintza, burdina eta metalen inguruko artisautza, buztinarena, harginena, beira eta oihalkiena, larruena, papera eta kartoia, elikadura eta abar luzea landu duen lauhundik gora artisau denera.

Alor bakoitzean landu diren espezialitateak aipatzen ditu atal bakoitzaren sarreran. Zuraren inguruan, esaterako, altzariak, makilak, landa tresnak, upelgintza, tirakaduragintza, zura torneatua, jostailuak, itsas modelogintza... Horrez gain, gai bakoitzari dagokion sarrera ere biltzen du katalogoak artisauen lana kokatzeko.

Artisau bakoitzari buruzko informazioa esanguratsua biltzen du: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, web orri edo posta elektronikoa, azokara zein urtetan etorri izan den, nolako produktu eta lanak egiten dituen, salmenta nola antolatua duen eta beste datu interesgarri eta osagarriak artisauaren argazki eta guzti.

Liburuaren argitalpena zuri-beltzean ageri da, oso txukun eta era zainduan. Amaieran dakarren izenen aurkibideak erraztu egiten du artisau bakoitzaren kokagunea topatzeko era.

Irakurgai interesgarriak

Ez dugu, haatik, katalogoaren hasieran datozen lanak aipatu gabe utzi nahi. Batetik, arestian aipatu bezala, Ereintzak berak eginitako lana dator, azokaren historia, nondik norakoa, garapen eta bilakaera azaltzen duen lan mamitsua. Prentsan argitaratutako berri eta oharrez hornitua.

Laburra bezain esanguratsua da ondoren dakarren Juan Garmendia Larrañagaren lana. Eskulangintzaren eta etnografiaren munduan izar argitsua dugu Juan, jakintsua bezain apala. Eskertzekoa da tolosarrak bizitzan zehar egindako lan sakon eta ugaria. Eskertzekoak, noski, katalogo honen hasieran ematen dituen argibideak.

Eskulangintzaren munduarekin izan duen harreman estuaren berri ematen digu Arantzadi Elkarteko Fermin Leizaolak, eta Jose Mari Gorrotxategi gozogileak, berriz, Ereintzarekin izan dituen harremanak eta azokan bizi izandako esperientzia ezagutarazten dizkigu. Esanguratsua, baita ere, Edorta Kortadiren gogoeta.